

# Asisko gutuna

2022ko maiatza

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

163. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunaren sare sozial irekia da.

Justiziaren eta errukiaren arteko tentsioa bizi dugu solidarioak izateko orduan. Txintxokerian erortzen diren zintzoak izan gaitzke, edo justizia eskatzen duten bihozgabeak gara, lagundu nahi diegun pertsonak ahaztuta.

## Gogoetarako gaia

### *Justizia eta errukia*

Kristau-fedeak, frantziskotar espiritualitatea barne, dakarren elkartasunak mundua sakontasun handiagoz begiratzera garamatza. Asisko Frantziskok bere baitan bizi izan zuen Jainkoak berarekin izaniko erruki handia. Hala dio bere idazkietan. Esperientzia horrek besteekiko harremanean errukiorra izatera bultzatu zuen, batez ere txiki eta behartsuenekin. Guk ere, Jainkoak digun errukiaz jabetuz gero, besteei sakonago begiratu diegu; eta begirada honek norabide bikoitza izango du.

Alde batetik, begirada hori errukitsuagoa izango da. Hau da, hainbat eta hainbat pertsonaren hauskortasunaz arduratuko gara. Besteen sufrimenduak hunkitu egingo gaitu. Inoren sufrimenduak gu ukitzeko gaitasun hori pixkanaka bereganatzen da, ez kolpe batean. Normalena da errealitate horietatik ihes egin nahi izatea, ez begiratzea, horrelakorik ikusi nahi ez izatea, enbarru egin ez diezadan. Gure gizarteak sufritzen ari direnengandik aldentzeko joera du. Begirada

errukiorrak, aldiz, onartzaileagoak egiten gaitu, enpatiarako gai.

Bestalde, justizia-zentzua ere zorrotzagoa egiten da, gure gizartean naturalizat jotzen diren eta pertsona askorentzat sufrimendu eta bizimodu desegokiak sortzen dituzten bidegabekeriaren aurrean. Jainkoak gutako bakoitzarekiko duen errukiak begiak ireki egiten dizkigu mundua ez dagoela ondo ikus ahal izateko, asko dagoela aldatzeko eta hobetzeko. Gure munduan itxuraldatzen diren bidegabekeriak eta gaitzak salatzen bultzatzen gaitu.

Bi dimentsio horietan sakontzea ezinbestekoa da frantziskotar espiritualtasunean eutsi eta aurrera egiteko. Munduari eta bertan bizi diren pertsonen buruzko begiradan sakontze horretatik, errukiaren eta justiziaren aldeko urratsak eman ahal izango ditugu. Errukirik gabe justizia hotz bihurtzen da, eta justiziarik gabeko errukia sentimendu hutsean geratzen da, sufritzen ari direnentzako ondorio onuragarrik gabe.

## Biblia pasartea: Am 8,4-8

Entzun hau, zuek, behartsuak zapaldu eta jende errukarria hondatzen duzuenok. Zeuen baitan diozue: «Noiz amaitu behar ote du ilberri-jaiak, labore saltzeko? Noiz larunbatak, garia salmentan ateratzeko? Neurria txikiagotu eta prezioak handituko ditugu, okerreko pisuak erabiliz. Gari-hautsa bera ere saldu egingo dugu. Jende xehea dirutan erosiko dugu, eta behartsuak oinetako pare baten truke». Jakoberen ondorengoen ohorea den Jaunak zin dago, ez dituela ahaztuko berorien egintza gaiztoak. Horrekin guztiarekin, lurra bera ere ez ote da dardaratuko? Bizilagunek ez ote dute dolurik egingo? Lur osoa Nilo ibaia bezala haziko da, Egiptoko ibaiaren antzera puztu eta hustuko da.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Pobreen aitak, Frantzisko pobreak, gauza guztietan pobreen kideko eginak, ezin zuen jasan norbait bera baino pobreagoa ikustea, ez ospe hutsalaren gosez, bihotzeko gupidaz baizik. Tunika zarpail eta latz batekin pozik zen arren, hau ere askotan behartsuren batekin banatu nahi zuen.

Pobre guztiz aberats honek, gupidazko sentimenduak eraginda, hotzaldi gogorretan mantua edo larruzko jantziak eskatzen zizkien maileguz munduko aberatsei, behartsuei lagundu ahal izateko. Eta haiek debozioagatik aita dohatsuak eskatu baino gogotsuago ematen zizkiotenean, esaten zien: «Baldintza batekin onartuko dizkizuet: berriro jasotzeko itxaropenari uko egiten badiozue». Ondoren, alai eta pozik, bidean aurkitzen zuen lehenengo behartsua janzten zuen hartutako jantziarekin.

Jasanezina egiten zitzaion behartsuren bat iraintzen ikustea edo Jainkoaren sorkariren bat madarikatzen entzutea. Hala esaten zuen: «Behartsua madarikatzen duenak, mundu honetan behartsu egin zen Kristo iraintzen du, pobrea haren nobleziaren irudi baita». (1Zel 76)

## Otoitza

Errukia barneko zerbait da niretzat,  
sentitzen dudana txoko hartan dago,  
Berak bakarrik bere eskua eta arnasa pausatu zuen  
txokoa.

Errukia maitatzea da, maite-suz maitatzea,  
nori? Denei.

Eta nolakoa da beti iristen den maitasun hori?  
Harkaitzetik irteten den ura bezalakoa da  
eta ibaira iristen da, dena haz dadin,  
eta horrela sortzen da bizitza,  
ura ezerk ez baitu geldiarazten.

Errukia, ematea, dohaina  
lurrak uzta ematen duen bezala,  
hodeiak ura,  
eguzkia bere izpiak eta zerua bere koloreak, bere izarrak.

Errukia, irribarrea,  
haurrarena bezalakoa amak musu ematean,  
maitasuna aurkitzen duen gaztearena bezalakoa,  
bakeaz eta harmoniaz gozatzen duten  
gizon-emakumearena bezalakoa,  
lurra delako lekua,  
bihotza pozez betetzen den lekua.

Errukia, haizeak bere amaierara daramanan hura bera  
pozik bidaiatzen du arrastoak utzi zituelako  
egindako bidean,  
eta itsasoak zeharkatuko dituzte beren oroitzapenarekin,  
bela berriak zabalduz  
eta baita denak igotzen dituzten bideak ere.

Errukia: bizi ezazu!, horixe nahi dut zuretzat,  
niretzat, lurrean bizi garen guztiontzat.

M<sup>a</sup> Blanca Arranz  
Errukiaren ahizpa

## Gutuneko azken hitzak

Gizarte aske batek ezin badie behartsu askori lagundu, ezingo ditu gutxi batzuk besterik ez diren aberatsak salbatu. (John F. Kennedy)


## 2022ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Jn 21, 1-19	8. Jn 10, 27-30	15. Jn 13,31-35	22. Jn 14,23-29	29. Lk 24, 46-53
2. Jn 6, 22-29	9. Jn 10, 1-10	16. Jn 14,21-26	23. Jn 15, 26-16, 4a	30. Jn 16, 29-33
3. Jn 14,6-14	10. Jn 10,22-30	17. Jn 14,27-31a	24. Jn 16,5-11	31. Lk 1,39-56
4. Jn 6, 35-40	11. Jn 12, 44-50	18. Jn 15, 1-8	25. Jn 16,12-15	
5. Jn 6,44-51	12. Jn 13, 16-20	19. Jn 15, 9-11	26. Jn 16,16-20	
6. Jn 6,52-59	13. Jn 14, 1-6	20. Jn 15,12-17	27. Jn 16, 20-23a	
7. Jn 6, 60-69	14. Jn 15,9-17	21. Jn 15, 18-21	28. Jn 16, 23b-28	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Maiatzeko otoitza hilaren  
26ean izango da.